

1999ko OTSAILAREN 10eko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatzehun eta laurogeita hemeretziko otsailaren hamarrean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziek ez dira agertu, nahiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- 1998 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA AURREKONTUKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen, Lizartzako Udaleko 1998ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauak, Entitate Lokalen Aurre-kontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan eta abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuak, Entitate Lokalen Aurrekontu-Erregelamendua onartzeak, 60.3 artikuluan, emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

Lehena.- 1998ko Lizartzako Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

KONTZEPTUA	PARTZIALA	GUZTIRA
Altxortegiko Izakin Likidoak 98-12-31ean		8.549.749
Kobratu Gabeko Saldoak, 98-12-31ean	4.610.591	

Kobratu Gabeko Saldoak, itxitako ekitaldikoak	1.893.911	
Kobratu Gabeko Saldoak, Aurrekontuz Kanpok.	95.690	+ 6.600.192
DENERA		15.149.941
Ordaindu Gabeko Saldoak		- 12.260.259
Aurtengo Ekitaldikoak	10.932.814	
Itxitako Ekitaldikoak	379.786	
Aurrekontuz Kanpokoak	947.659	
ALTXORTEGI-GERAKIN GORDINA		2.889.682
Saldo Kobragaitzak		-----
Altxortegi-gerakin likidoa		2.889.682
Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina		-----
Gastu Orokorretarako Altxortegi Gerakina		2.889.682

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espeditien-tearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, eta foru dekretuak, 60.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

1998 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 1998 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Jarraian, Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta

bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikulua horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

1998 urteko Aurrekontuaren Likidazioa eta Aurrekontuko Kontu Orokorra aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

3.- 1999 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaitan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 1999 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

SARREREN EGOERA

Kapitulua	Izena	Pezetak
1	Zuzeneko Zergak	10.346.840
2	Zeharkako Zergak	500.000
3	Tasak eta Beste Diru-Sarrerak	4.088.144
4	Transferentzi Korrontek	47.210.016
5	Ondare Sarrerak	14.555.000
GUZTIRA		76.700.000

GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izena	Pezetak
1	Pertsonal Gastuak	24.048.336
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan	18.886.325
3	Finantza Gastuak	748.958
4	Transferentzi Arruntak	10.836.859
6	Inbertsioak	19.000.000
9	Pasibo Finantzarioak	3.199.522
GUZTIRA		76.700.000

1999urterako Aurrekontu Orokorra eta bera Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Azterturik, Lizartzako Udaleko 1999ko Plantilla Organikoa, hau da, funtzionarioei, pertsonal laboralari eta ebentualari gordetako lanpostuen zerrenda eta baita berauei dagozkien hizkuntz eskakizunak, hau guztia 7/1985 Legeko 90.1 artikulua agintzen duenaren arabera, eta halaber 781/86 Erret Dekretu Legislatiboko 126.1 artikulua arabera, bertako zinegotzien ahobatez, erabaki da:

- 1.- Udal honetako plaza eta lanpostuen Plantilla Organikoa onartzea, 1999ko ekitaldirako, akordio honen zati espositiboan agertzen den arautegiaren arabera.
- 2.- Plantilaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea 781/1986 Erret Dekretu Legislatiboko 127 artikulua arabera eta baita Udaletxeko Ediktuen Taulan ere.

3.- Onartutako plantilaren kopia bat aipatu Erret Dekretu Legislatiboko 127. artikuluan aipatzen diren organismoei bidaltzea, plantila behin aipatu medio ofizialean publikatu eta gero.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Lanpostuaren Izena	Lanpostu Kopurua	Taldea	Egoera	Oharrak
Idazkari-Kontuhartzail	1	B	J	70%
Administrari Laguntzai	1	D	J	
Lanetako Ofiziala	1	D	J	
Garbitzailea	1	E	J	
Etxez Etxeko Lagunt.	1	E	BB	26,90%
Gizarte Laguntzailea	1	B	BB	36%
Liburutegiko Laguntz.	1	D	BB	40%

1998 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Ordena Zkia: 1
 Izena: Idazkari-Kontuhartzailea
 Lanpostu Kopurua: 1
 Ordainketa Osagarria: 18
 Dedikazioa: 70%
 Bulegoa: Idazkaritza-Kontuhartzaitza
 Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak:
 Taldea: Gaikuntza Nazionala
 Azpieskala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza
 Klasea: 3
 Hizkuntz Eskakizuna:
 Koefizientea: 4
 Derrigortasun Data: 1991-02-06
 Eskatutako Titulua: Goi Batxilerra

PERTSONAL LABORALARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

Ordena Zkia: 1
Izena: Administrari Laguntzailea
Lanpostua Kopurua: 1
Kategori Profesionala: 7
Asimilazio Maila,
Destinu Osagarria: 9
Dedikazioa: Osoa
Bulegoa: Idazkaritza-Kontuhartzaitza
Lanpostu Horretarako Exijitutako Ukanbeharrak:
Taldea: Idazkaritza-Kontuhartzaitza
Azpieskala: Administrari Laguntzailea
Hizkuntz Eskakizuna:
Koefizientea: 3
Derrigortasuna Data: 1991-02-06

Ordena Zkia: 2
Izena: Lanetako Ofiziala
Lanpostu Kopurua: 1
Kategori Profesionala: 8
Asimilazio Maila,
Destinu Osagarria: 11
Dedikazioa: Osoa
Bulegoa: Obra Bulegoa
Lanpostu Horretarako Exijitutako Ukanbeharrak:
Taldea: Obra Bulegoa
Azpieskala: Obra Bulegoa
Hizkuntz Eskakizuna:
Koefizientea: 2
Derrigortasun Data: 1991-02-06

Ordena Zkia: 3
Izena: Garbitzailea
Lanpostu Kopurua: 1
Kategori Profesionala: 8
Asimilazio Maila:
Destinu Osagarria: 6
Dedikazioa: Osoa
Bulegoa: Obra Bulegoa

Lanpostu Horretarako Exijitutako Ukanbeharrak:

Taldea: AO
Azpieskala: LZ
Hizkuntz Eskakizuna:
Koefizientea: 2
Derrigortasun Data: 1992-05-01

Ordena Zkia: 4
Izena: Etxez Etxeko Laguntzailea
Asimilazio Maila: 6
Dedikazioa: 27,1%
Bulegoa: LZ

Lanpostu Horretarako Exijitutako Ukanbeharrak:

Taldea: AO
Azpieskala: LZ
Hizkuntz Eskakizuna:
Koefizientea: 2
Derrigortasun Data: 1991-02-06

Ordena Zkia: 5
Izena: Gizarte Laguntzailea
Lanpostu Kopurua: 1
Kategori Profesionala: B
Asimilazio Maila:
Destinu Osagarria: 13
Dedikazioa: 36%
Bulegoa: GO

Lanpostu horretarako Exijitutako Ukanbeharrak:

Taldea: AB
Azpieskala: LZ
Hizkuntz Eskakizuna:
Koefizientea: 3
Derrigortasun Data: 1991-12-01

Ordena Zkia: 6
Izena: Liburutegiko Laguntzailea
Lanpostu Kopurua: 1
Ordainketa Osagarria: 8

Dedikazioa:	40%
Bulegoa:	Administrario Orokorra
Lanpostu Horretarako exijituako ukanbeharrak:	
Taldea:	AO
Azpieskala:	LZ
Klasea:	
Hizkuntz Eskakizuna:	
Koefizientea:	3
Derrigortasuna Data:	1996-04-23

1999 urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, aho batez onartuak izan dira.

4.- 1999 URTEKO LANGILEEN LAN-HITZARMENA

Alkateak, hitza harturik, Udaletxeko Langileak aurkeztu duuten, komenio kolektiborako proposamena aurkeztu du. 1998ko komeniotik aldatzen den eskaera bakarra, IPC.aren arabera, hau da, 1,8 %ko igoera da.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, IPC.aren 1,8%ko igoera onartzea, aho batez erabaki da.

1999 URTERAKO, LIZARTZAKO UDALERAKO

KOMENIO KOLEKTIBORAKO PROPOSAMENA

1. Art.- Komenio honen sinatzaileek (Administrazioa eta Langileen Asanblada) errekonozitzen dute, honen oinarrizko egitura, Komunitate Autonomoko Langileen enplegu kondizioen 1998ko Akordio Arautzailearen Testu osoa izango dela.

Errekonozimendu honek suposatzen du, komenioak afektatutako pertsonalaren enplegu kondizioetan gutxieneko maila gisa ulertzen dutela bi aldeek aipaturiko textua, eta beraz, inolaz ere ezin izango dela aipaturiko

textuan iadanik lortutako eskubide laboralak baino beheragoko kontzepturik edo hauek murrizten dituenik ezarri eta aplikatu.

Aurrekoari jarraituz eta Lizartzako Udaleko Langileentzako 1999ko Komenio Kolektibo gisa, bi aldeek sinatzen duten eta betetzera eta errespetatzera konprometitzen direnaren edukin-definizio generiko gisa, ondorengo eskubide laboral bloke hauek zehazten dira:

1999 URTERAKO PLATAFORMA ERREIBINDIKATZAILEA

1. Blokea.- 1998ko Administrazio Lokalaren Akordio Erregulatzaillearen testu orokorra eta Udaleko Komenio Kolektiboa.
2. Blokea.- Textu horri buruz, azken urte hauetan Udal langilegoak aurkeztutako zenbait plataforma erreibindikatzailan, jasotako eta onartu-tako hobekuntza eta anpliazioak.
3. Blokea.- 1999rako Komunitate Autonomo mailan, Administrazio Lokaleko akordio erregulatzailan agertzen diren hobekuntza guztiak (1998ko testuaz gain), Lizartzako Udal langile guztien aplikaziorako izango dira, aurtengo urtarrilaren lehen ez geroztik.
4. Blokea.- Bloke hau, Udal honetako langileek egindako plataforma erreibindikatzaillearen zenbait puntuk osatzen dute:

a) Pertsonal Maila

Hitzarmen honek, 1999ko plantilla osatzen eta osatuko duten langile guztiengan izango du bere eragina. Hitzarmen hau berdin aplikatuko da denentzat, inongo diskriminaziorik gabe, nahiz eta langile batek bere zerbitzua kontratatu laboral bezela bete edo funtzionari moduan.

b) Denboraldia eta Iraupena

Hitzarmen honek, 1999ko Urtarrilaren 1etik, 1999ko Abenduaren 31 bitarte dirauko du, epe hau, 2000 urteko hitzarmen kolektiboa indarrean jarri artean luzatuko delarik.

c) Lan Orduak

Udal langileek, urte osoan zehar gehiengoz, 1547 ordu bete beharko dute.

d) Ordainketa Taula

1999ko komenioaz afektaturik dagoen guztiak, ordainketa gordinetan igoera hau izango du: IPC – 1,8%, Administrazio Lokaleko Akordio Erregulatzaileak jasotzen duen igoera langilego guztiari ziurtatuz.

e) Kilometrajea

Lan orduetan egiten diren kilometroak, kilometro bakoitzeko 36 pezta ordainduko da.

f) Bizia, Istripu eta Elbarritasun Asegurua

Gaur egun dagoen aseguru mantenduko da.

g) Gizarte Erantzunkizunaren Asegurua

Lizartzako Udala, edozein langilei bere funtzioak betetzerakoan sor lekioken gizarte erantzunkizunaren arriskuaz arduratuko da, haren garrantziaren proportziozko kopuruan.

Alkateak, Pertsonalaren Delegatuei entzun ondoren, dagozkien polizen kondizioak erabakiko ditu.

Edozein langile, bere lanak betetzerakoan auzitan sartzea gertatuko balitz, Udalak bere defentsarako giza medioak jarri beharko ditu.

h) Urteko Oporrak

1999 urtean zehar, langile guztiak 24 lanegun (Astelehenetik Ostiralera kontatuta) opor hartzeko eskubidea izango dute, hauek ordainduak izango direlarik.

i) Osasun Errebisioa

Udalak, langile guztiei urtean behin, Osasun Errebisioa egingo die. Gutxienik, odol eta pixaren analisia, Rayos X eta Minbiziaren diagnostiko prekoza, egingo dira.

Luzatzen diren txostenak, langile bakoitzari banatuko zaizkie.

j) Lizentziak

Arceparafeko 52. artikuluan, senideen heriotza edo gaixotasun grabeagatik gainera, Internamenduarena erantsiko da.

Arceparafeko 57. artikuluan, medikuntza motako kontsulta, tratamendu eta miaketara joatearen ziozko lizentzia, urteko 48 ordukoa izango da. Lizentzi hau emango da guraso, seme-alaba eta ezkontide edo elkarbizitza egonkorra egiten duenarekin joateko ere.

k) Gaixotasun Baja

Gaixotasun bajarengatik, Udal langilegoak bere ordainketen 100%koa jasoko du, gehienez 3 urte bitarte.

l) Barne Promozioa

Bai hutsik dauden lanpostu fijoak eta sortu litezken berriak, lehenik Lizartzako Udaleko langilego fijoari eskeiniko zaizkie.

Lizartzako Udaleko edozein langilek, barne promozioan agertutako edozein lanposturen hautagai izateko eskubidea izango du, inongo diskriminaziorik gabe, nahiz eta legeak eskatzen duen ikasketa edo titulazioa betetzen duen bitartean.

m) Nibelen Berrikuspena

Trienioen arabera, langile fijo bakoitzaren nibelaren berrikuspenaren proposamena egingo da, egoki iruditzen bada, Udalak bere onarpena emango dioelarik, bere taldeari dagokion nibel haundienera iritsi arte.

n) Eskubide Sindikalak

Lizartzako Udaleko Sekzio Sindikalak bere kideen ordu sindikalak, urtero akumulatzeko eta behar dituztenean hartzeko eskubidea izango dute, beren ordezkari karguen artean, erarik hoberenean banatzeko aukera izanaz.

Langile ordezkariak egiten dituzten lan eta funtzio guztiak zerbitzu batzorde barruan eginak kontsideratuko dira, eta pertsonal zerbitzua jakinaren gainean jarri ondoren, sortu liratekeen gastuak Udalak finantziatu beharko ditu, behar den bezela justifikatu ondoren.

Lizartzako Udal langileek urtean zehar asanbladak egiteko 20 lan ordu (ordainduak) hartzeko eskubidea izango dute.

1999 URTERAKO ORDAINKETA OROKORRAK

IGOERA: 1,8 %

NIBELA	1998 Urtean	1,8% IGOERA	GUZTIRA	BPFZO
30	523.100	9.415	532.515	24%
29	508.513	9.153	517.666	24%
28	493.920	8.890	502.810	24%
27	479.330	8.627	487.957	24%
26	464.738	8.365	473.103	23%
25	450.149	8.102	458.251	23%
24	435.560	7.840	443.400	23%
23	420.964	7.577	428.541	23%
22	406.381	7.314	413.695	21%
21	391.785	7.052	398.837	21%
20	377.199	6.789	383.988	21%
19	362.608	6.526	369.134	21%
18	348.017	6.264	354.281	19%
17	333.426	6.001	339.427	19%
16	318.836	5.739	324.575	19%
15	304.255	5.476	309.731	18%
14	289.655	5.213	294.868	18%
13	275.063	4.951	280.014	17%
12	262.400	4.723	267.123	17%
11	249.826	4.496	254.322	16%
10	237.076	4.267	241.343	16%
9	224.418	4.039	228.457	16%
8	212.637	3.827	216.464	15%
7	200.857	3.615	204.472	15%
6	189.249	3.406	192.655	13%

1999 URTEKO HIRURTEKOAK

IGOERA: 1,8 %

TALDEA	1998 URTEA	1,8% IGOERA	GUZTIRA
A	7.337	132	7.469
B	5.959	107	6.066
C	5.355	96	5.451
D	4.324	77	4.401
E	3.822	68	3.890

5.- GAZTELU-LIZARTZAKO MUGAK. IRUNZIEtxEBERRI

Iruntzi Etxeberri Baserriko jabeen adierazpenen arabera, Lizartza eta Gazteluko Laguntzazko Arauetan, baserri horren inguruan, Lizartza eta Gaztelu arteko mugak, ezberdinak dira.

Horren arabera, bi udaletako Arkitektoek, bertara hurbildu ziren, mugarriak bilatu eta benetako mugak zeintzuk ziren zehaztu ahal izateko.

Ikustaldi horren ondorioz, bi Arkitektoek, planoetan zehaztu dituzte, adostutako herrien arteko mugak, aldaketa hori, Laguntzazko Arauetan gauzatu ahal izateko.

Horren arabera, egunen batean egin beharreko, Lizartzako Laguntzazko Arauen aldaketan, muga hoiak behar diren bezala jartzea proposatu da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

6.- REPSOL S.A.ri LURREN ZESIOA

Repsol Butano SA.rekin, 1998ko Maiatzaren 13an sinatutako hitzarmenaren arabera, herri honetan kanalizatutako propanozko gasaren hornidura eta banaketarako zerbitzu publikoaren instalaziorako, Udal-titulartasunekoak diren lurren lagapena eta okupazioa Repsol Butano SA.ren

alde egingo du. Lagapen hori musutruk izango da, Udalak proiektuari egindako ekarpen gisa, eta jarraian deskribatzen direnak dira:

Finkaren izena eta izaera: Aztinako-Etxe-Burua

Lagapen finkaren gainazala m².tan 232.

Mugak: Inguru guztia, Aztinako-Etxe-Burua lurrak.

Aipatu finkak ez du ez kargarik ez zergarik, eta ez dago bere kontra inolako debekurik.

Repsol Butano SA.ri erabaki honekin ematen zaizkion eskubide errealak indarrean iraungo dute konpainia horrek administrazio-emakidaren titulartasuna den bitartean, herri honetan kanalizatutako gasa hornitzeko eta banatzeko.

Goian aipatutako lurren musutrukezko lagapena, Repsol Butano SA.ren alde, egiteko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

7.- PLAZA SORO, 18 ETXEBIZITZEN GARAJEAK. IGOKA ESPEDIENTEA

GARAJE IHARDUERA ESKAERA

IKUSIRIK.- Plaza Soro Kooperatibak, Plaza Soron, 18 etxebizitzetan garajeak jartzeko baimen eskaera, eta horri buruz eman diren tramiteak.

IKUSIRIK.- Iharduera jarri nahi den eraikuntza, 1961eko Azaroaren 30eko Erregelamenduak dioenarekin, Udaleko Arauetara egokitu eta Arau Subsidiarioetako hirigintz kalifikazioarekin ados dagoela.

IKUSIRIK.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera proposatu da:

1.- Plaza Soro Kooperatibak eskaturik, Plaza Soron, 18 etxebizitzetan garaiek jartzeko baimenari, aldeko txostena luzatzea.

2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, GARAJE kalifikazioa proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

8.- ELIZAKO OBRARI LAGUNTZA

Lizartzako Santa Katalina Parrokian, obrak egin behar dituztela eta, Parrokiko apaiza den, Iñaki Zubeldia Jaunak, beraiei dagozkien proiektua aurkeztu du, baimena eta era berean, diru-laguntza eskatuaz.

Proiektua aztertu eta, zera proposatu da:

Lizartzako Santa Katalina Parrokian egin nahi diren obrei, Bost Milioitako diru-laguntza luzatzea, bost urtetan banaturik. Hau da, 1999 urtetik hasi eta 2003 urte bitarte, urteko milioi bat.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

9.- BAI EUSKARARI – LANORDU BAT AKORDIOAREN ALDE KANPAINA

Euskara 2000. Urtearen atarira heldu da. UNESCOren arabera, gaur egun munduan dauden lau mila hizkuntza baino gehiagotik, mila galduko dira datozen hogeitau urteetan. Bai Euskarari Akordioan euskara hirugarren milurtean bizi eta gara dadin gure gizarteak duen erabaki sendoa islatu nahi dugu, izan ere, gaur gaurkoz hori bermatu gabe baitago. Horregatik, hamarkada banaka batzuetan burura eraman nahi dugu gaurko erritmoan askozaz epe luzeagoa beharko lukeen eta agian inoiz burutuko ez litzatekeen prozesua. Prozesu horren gakoa gizarteko estamentu guztiak bertan inplikatzeko datza.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak, euskararen baitako enpresa eta erakunde ia guztiak biltzen dituen elkargune honek gizarte-eragile guztien artean banatu nahi du euskara normaltzearen protagonismoa, Bai Euskarari akordioan islatuz.

Bai Euskarari Akordioa

Iruñean 1998ko abenduaren 23an sinatutako akordio honen bitartez sinatzaile diren gizarte-eragileek euskarak garapen osoa lor dezan beren borondatea agertu dute, horretarako euskararen normalkuntza behin betiko bideratuko duen prozesu batean esku hartuz eta elkarlanean zuzenduz. Prozesu hori hizkuntz normalkuntzarako Plan Estrategikoa burutu eta ezartzeak arautuko du; horrek aztertuko baitu hizkuntzaren egoera sektorez sektore eta lurraldez lurralde, maila bakoitzean beharrezko neurri normalizatzaileak finkatuko ditu, eta horien arabera, plana diseinatzen esku hartuko duten gizarte-eragileetako bakoitzak konpromiso zehatz eta borondatezkoak hartu eta praktikan ezarriko ditu. Sinatzaileek Euskal Herriko gizarte-eragile guztiei akordio honetara eta konpromiso prozesura biltzeko proposamena egin dute.

“XXI. Mendeko akordioa: Bai Euskarari” kanpainaren helburua akordio eta konpromiso prozesu horren alde ahalik eta gizarte atxikimenduruk handiena lortzea izan da. Abenduaren 26an Euskal Herriko 5 estadio nagusietan 120.000 lagun aldi berean bildu ziren ekitaldi historiko batean.

Lanordu bat akordioaren alde

Lanordu bat akordioaren alde izeneko ekintza honekin jasotako dirua akordioaren prozesua finantzatzeko eta, bereziki, hizkuntz normalkuntzarako Plan Estrategikoa prestatzeko erabiliko da.

Guzti horren arabera, eta Udaleko langileen sinatu dituzten atxikimenduen arabera, zera proposatu da:

Aipaturiko prozesuari Udalaren atxikimendua agertzea eta langile bakoitzak, lanordu bati dagokion soldataren zatia akordio eta konpromiso dinamikaren alde ematea erabaki duenez, kopuru berdina Udalak ezartzea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

10.- EUDIMAREN MOZIOA – INSUMISIOA EZ DA DELITOA

Inhabilitazioen inguruko gaia dagoeneko ez da berria oraindik ere ezer gutxi egin da administrazio mailan gai honen inguruan. Euskal Herrian milaka gazte dago inhabilitaturik edo inhabilitatzeko prozesuan, soldaduskari eta Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egiteagatik. Inhabilitazioa insumisioen aurkako zigor “inteligente” bat da, kartzela zigorraren aurrean askoz ere eragin sozial gutxiago sortzen baitu. Hala ere insumisoentzat ondorio latzak dakartzki inhabilitazioak, lanpostu publikorik ezin eskuratu, babes ofizialeko etxebizitzetarako aukerarik ez, beka ezin eskuratu, kargu publiko izateko aukerarik ez, azken finean administraziotik eskura daitezken laguntza guztien ukapena. Beraz esan daiteke bigarren mailako pertsona bihurtzen dela insumisioa, edozein gizabanako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea etab.....

Gaur egun egoera honetan dauden Euskal Herrian gazte ugari, baina ez bakarrik gazteak Udalak ere inhabilitazioaren gaia dela eta ez dela arazo ugari ditugu, lan eskeintzak egiterakoan edo lanpostuak betetzerakoan. Gobernuak inhabilitazioen bidez insumisioak zigortzeko ardura nagusia administrazioaregan jartzen du eta udalek zigor hauek aplikatzerakoan zer esan haundia daukagu, gure lana ere zeharo baldintzatzen baitu. EUDIMAtik egunetik egunera argiago ikusten dugu udaletxetik argi eta garbi azaldu behar dela honekin ez gaudela ados eta lege publikoki salatzen dugula.

Beraz hauxe jakin arazi nahi dugu:

- 1.- Gizarte desmilitarizatu baten aldeko insumisioekin gure elkartasuna adierazi nahi dugu.

- 2.- Alistamenduak udaletan egin beharrekin ez gaude ados eta horregatik ez dugu espainiar armadakin kolaboratuko.
- 3.- Insumisioei ezartzen zaizkien inhabilitazioa zigorrekin bat ez etortzearekin batera zigor hauek ezartzea salatu nahi dugu.
- 4.- Behingoz insumisioaren despenalizazioa aldarrikatzen dugu. Insumisioei inolako zigorrik ez jartzea exigitzen dugu.
- 5.- Udaletxean hartutako erabaki hau publikoki egingo dugu, herritarrei, EUDEL, Foru Aldundiari, Gasteizko Lege Biltzarrari, Iruñako Lege Biltzarrari eta Espainiako Parlamentuari igorriko diogu akordio honen kopia.
- 6.- Era berean akordio honen berri emango diegu komunikabideei eta EUDIMARI.

11.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

INSALUS LANTEGIKO PABILOI BERRIA 0,00 KOTARAINO ERAIKITZEA

Agua de Insalus, SA.k, Insalus Lantegiko Pabilioi berria 0,00 kotaraino eraikitzeke obrak egiteko Baimena ematen zaio, baldintzapen hauekin:

- 1.- AASSen U-2 eremuko ordenantza berezien arabera eraikuntza Hiri Lurzoruan kokatzen da.

Ibaiaren ur bazterretik 10 eta errepidearen marra zuritik 15 m.ko tartea uzaten da eta Araxesen bazter barrena 1,80 m. zabalera duen espaloia egingo da.

Lurrean eraikuntzak 1.068 m² okupatzen ditu eta denetara eraikita azalera 1.180 m² izango dira.

- 2.- Obrak hasi aurretik Zuzendaritzaren izendapena jakinaraziko zaio Udalari.

Exekuzio proiektu osoa aurkezteko 6 hilabetetan finkatzen da epea.

Eraikuntzarekin batera urbanizazio lanak burutuko direla ziurtatzeko 17.923.783,- peztatako abala jarriko da.

Udalarekin siantutako hitzarmenaren HIRUGARREN eta LAUGARREN estipulazioak bete behar dira Udal baimenak ematen dituen eskubideak eskuratzeko.

Lehen Erabilpena eskaerarekin batera, urbanizazio publikoaren behin behineko harrera eskatuko da, hau eta partzela pribatuko urbanizazio osagarria egoki bukaturik eta obren zuzendariak ziurtaturik.

Obraren zehar itxitura antolatuko da inguru osoan.

4.- Eskatutako obra baimena EMATEN DA, Obren luzapena zortzi hilabetetan irizten delarik.

IRIBARREN ETXEBIZITZA

Mariano Urbizu Zabala Jaunak, Iribarren etxebizitza berregokitzeko aurkeztu duen baimen eskakizuna aztertu ondoren, baimena EMATEA onartu da, baldintza hauekin:

- Teila zeramika arabiarra gorria izango da edo antzekoa. Teila azpiko lata berritzen denean eta holtzak kenduta zurezko egitura agerian dagoenean, berritzeko premia duen ala ez aztertzeko udal teknikariak bertan ikuskapen bisitaldia eginik aztertuko du. Kasu horretan proiektu teknikoa aurkeztea beharrezkoa irizten baita.
- Fatxada kolore argiz pintatuko da.

LORENZO BARRIOLA

Lorenzo Barriola Tolosa Jaunaren jabetzakoa den Lardi Baserriari dagokion lur saila, ERROTA-TXIKI Lur sailetik (Pol. 2, 331 Partzela) 72 m² banandu eta Jose Cruz Goñirekin permutatu ahal izateko eskabidea eta Teknikariaren Txostena ikusirik, honako hau

ERABAKI DUT:

ERROTA TXIKI lur sailetik 72 m² banandu eta Jose Cruz Goñirekin permutatu ahal izateko eskatutako baimena ematea.

URETA BITARTE BASERRIAREN HURRE-HURREKO AURRI AITORPENA

Udal-Arkitarktoak, URETA BITARTE Baserria higiezinaren segurtasun baldintzei eta bizigarritasunari buruz egindako txostenaren berri eman ondoren.

Eraikuntzaren egoera arriskugarriagatik higiezina aurri arriskuan dagoela Uda-Teknikariak ikusi ondoren, agin pertsona eta ondasunei kalte egin diezaiekeela, bertan bizi direnak ethez utziaraztea eta gehienez bi eguneko epean botatzea proposatu du.

Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuaren 247. artikuluan eta Hirigintza-Arauaren Erregelamenduaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, segurtasun arrazoiengatik, higiezinaren bizigarritasunari buruz beharrezkoa erabaki eta bertan bizi direnak etxea utziarazi beharra daukatela jakin ondoren, Lurzoru-Erregimen eta Hiri-Antolamenduaren buruzko Legearen 247. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) kasuaren barruan dagoelako.

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

- 1.- Miguel Jose Etxeberria Luluaga-rena den eta URETA BITARTE eraikina hurre-hurreko aurri egoeran aitortzea, bertan bizi direnek eraikina berehala utz dezatela aginduz, erortzeko arriskuan dagoelako, Lurzoru-Erregimen eta Hiri-Antolamenduari buruzko Legearen 247. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) kasuan tipifikatuta dagoelako.

2.- Bi eguneko epea ematea, Miguel Jose Etxeberria Luluaga Jabeak higiezina bota dezan, epe horretan berak bota ezean, Udalak bere kontura botako duela ohartaraziz.

JESUS OLASKOAGA

JESUS OLASKOAGA LERTXUNDI Jaunak, 1995eko Abuztuaren 10eko datan luatutako obra baimenaren arabera, Kale Nagusia, 25ean eraikitako etxebizitzan lehen erabilpen baimena eskatu du.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek, aldeko txostena luzatu dute.

TRLS.ko 242.2 eta RDU.ko 1-10 artikuluek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

Udalari dagokioenean, Lehen erabilpenerako lizentzia ematea, beste erakundeei tokatu litzaizkiekenen kalterik gabe.

PLAZA SORO KOOPERATIBA

Plaza Soro Kooperatibak, Plaza Soron, adosatutako 20 banakako etxebizitzetan garaiek jartzeko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak, GARAJEAK bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

1.- PLAZA-SORO KOOPERATIBA baimentzea, Plaza Soron, adosatutako 20 banakako etxebizitzetan garajeak jartzeko, aurreago aipatzen diren baldintza eta Zuzenketa-Neurriei baldintzatuaz:

A) BALDINTZAK

- 1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.
- 2.- Akta hori lortu ahal izateko, Kooperatibak Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.

D.- NEURRI ZUZENTZAILEAK – GARAJEA A (734,9 m²)

- 1.- Organismo tekniko eskudunek orokorrean aplikatzeko emandako arau espezifikoak bete behar ditu; bereziki hauek:
 - Udal ordenantzak eta hirigintza arauak.
 - Behe Tentsioaren Erregelamendu Elektronikoa (irailaren 20ko 2413/1973 Dekretua, 1973-10-09ko BOE, 242 zk., eta urriaren 9ko 2295/1985 Errege Dekretua, 242 zk. BOE), Jarraibide Tekniko Osagarriak, eta horiek bat datozen gainerako arauak.
 - Uztailaren 24ko 1909/1981 Errege Dekretua, eraikinetako baldintza kustikoei buruzko NBE-CA-81 Eraikuntzako Oinarrizko Araua onartzen duena; abuztuaren 12ko 2115/1982 Errege Dekretua, NBE-CA-82 araua onartzen duena (ikus 1982-09-03 eta 1982-10-07ko BOE); 1988ko irailaren 29ko Agindua, NBE-CA-82 arauaren eranskinetako zenbait alderdi argitu eta zuzentzen dituena; eta horiekin bat datozen gainerako arauak.

- Urriaren 4ko 1eko 21777/1996 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Oinarrizko Araua. Eraikinetako Suteen aurkako Babes Baldintzak, NBE-CPI-96 (96-10-29ko 261 zk. BOE).
 - Industria, Energia eta Meategin Administrazio Ataleko zuzendariak 1996ko apirilaren 15ean emandako EBAZPENA, gasolindegi, garaje eta ibilgailuen konponketarako tailerrei dagokienean MI-BT-027 jarraibide teknikoan 9. Atala interpretatzeko argibideak ematen dituena (96-7-31ko 146 zk. EHAA).
- 2.- Lokala hosgabetzea, ez daitezten gainditu logela, sukalde eta egongeletan 40 dB(A) egunez eta 30 dB(A) gauez 60 segundu jarraiko soinu maila baliokidea (Leq.60-s) neurtuta, eta 45 dB(A) egunez eta 35 dB(A) gauez gehieneko soinu maila (Lmax) neurtuta, hori guztia udal arautegi espezifikoa egonez gero, haren kalterik gabe.
- 3.- Sarrera eta irteerako ateeak isilak izan behar dute.
- 4.- Makineriaren finkaketak dardararen kontrako elementuez egin behar dira, eraikinaren egiturara, gertuko lokal eta etxebizitzetara ez dadin dardarari helerazi.
- 5.- Kanpoko aireztapen iraunkorra auzokoei eragozpenik sortu gabe egingo da; airearen irteera etxeko edo inguruko lokaletako edozein baotik 3 metrora gutxienez jarri beharko da, eta lokalaren kanporako gutxieneko aireztapen iraunkorra ibilgailuek har dezaketen azalera erabilgarriaren %2koa izango da, errodadurako pasiloak barne.
- Aireztapen iraunkorreko irekiduratzat hartu ahal izango dira ateetan egindakoak baldin eta aireztapen horrek garajearen aireztapen orokorrerako aurreko paragrafoan aipaturiko azalera osoaren %75a gainditzen ez badu.

Garajeen aireztapeneko bi irekidura egongo dira fatxada ezberdinetan, ahal dela pareko fatxadetan jarriko dira lokalean haize mugimendua sortzeko.

Garajeko edozein puntutik, lerro zuzenean, gehienez ere 25 metro egongo dira aireztapeneko baoren batera, honen azalera 0,25 m²koa izango delarik gutxienez.

Aireztapeneko bao iraunkorrak bertikalean jarriko dira eta beti guztiek erabiltzeko diren lekuetan.

Itxitako garaje plaza bakoitzak bi irekidura iraunkor izango ditu atearen goi eta behealdean, sabai eta zorutik 30 cm. Baino tarte txikiagora. Ate bakoitzeko irekiduraren gutxieneko azalera erabilgarria 200 cm²koa izango da.

Garaje plazen arteko aireztapena bermatuko da garajeen artean aireztapeneko zuloak jarritz.

Aparkalekuen arteko aireztapena bermatzea gomendagarria da, beraien artean etengabeko aireztapen tarteak ezarriz.

Eskatzen den kanpoko aireztapen iraunkorra beteko ez balitz horren ordeztapen bortxatuko sistema jarri beharko litzateke gutxieneko osasungarritasun eta segurtasun baldintzak bermatzeko.

- 6.- Debekatuta dago mota guztietako erregaiak biltegitratzea, autoen depositoetakoak izan ezik.
- 7.- Oin bakoitzean koipe edo gasolinaz bustita egon daitezkeen trapuak gordetzeko ontziak jarri behar dira, sukotrako materialezkoak eta estalki abisagratua dutenak.

- 8.- Era berean, gasolina edo koipea ustekabeen erortzen denean xurgatuko duten produktuak (harea, etab.) ontzi irekietan eduki behar dira, 500 m²ko edo frakzioko, bana jarritz.
- 9.- Jardueraren eta etxebizitzaren artean dagoen atarte bereizleko ateek automatikoki ixten direnak izango dira eta suaren kontrako 30 minutuko erresistentzia eduki behar dute (RF-30) bakoitzak, gutxienez.
- 10.- Denentzat diren kanporako hustuketarako bi irteerek RF-30 itxiera automatikoko ate bat izango dute.
- 11.- Aparkalekuan okupa daitekeen puntutik proposatutako irteeretara egon behar duen bidearen luzera 50 metro baino gutxiagoa izango da.
- 12.- Irteteko edozein lekutatik gutxienez bi irteera aukera dituen edozein puntura egongo den bidearen luzera ez da 25 metrokoa baino handiagoa izango.
- 13.- Husteko bide gisa erabiliko diren eskilerak gutxienez metro bateko zabalera edukiko dute.
- 14.- Eskileren zabalera hainbesteko sakontasuna eduki behar dute gutxienez eskailburuek.
- 15.- Irteeratako ateek kanpoaldera irekitzen direnak izan behar dute eta izukontrako palanka eduki.
- 16.- Jarri behar dira era berean: hauts lehorreko su itzalgailu eramangarria (1), 21^a-113B eraginkortasuneko, egin beharreko bidearen 15 metrora.
- 17.- Hustutzeko bide guztiek eta suteen kontrako gailu guztiek NBE-CPI-96 arauko 12. Artikuluan agindutakoaren arabera egon behar dute seinalizatuta.

- 18.- Garajeetan jarritako suteen aurkako babes neurriek Industria eta Energia Ministerioaren 1942/1993 Errege Dekretuak ezarritako mantenimendu programa beteko dute gutxienez.
- 19.- Larrialdiko luminarien arteko distantzia kokatuta daudeneko garaierak halako lau baino txikiagoa izan beharko du, azken distantzia hori 2 eta 2,5 metro bitartekoa izango delarik.
- 20.- Proiektuan adierazita dauden zehazpenak eta neurri zuzentzaileak nahitaez bete behar dira, goian aipatutako jarribideekin bat ez datozenean izan ezik.

GARAJEA B – (486,9 m²)

- 1.- Organismo tekniko eskudunek orokorrean aplikatzeko emandako arau espezifikoak bete behar ditu; bereziki hauek:
 - Udal ordenantzak eta hirigintza arauak.
 - Behe Tentsioaren Erregelamendu Elektronikoa (irailaren 20ko 2413/1973 Dekretua, 1973-10-09ko BOE, 242 zk., eta urriaren 9ko 2295/1985 Errege Dekretua, 242 zk. BOE), Jarraibide Tekniko Osagarriak, eta horiek bat datozen gainerako arauak.
 - Uztailaren 24ko 1909/1981 Errege Dekretua, eraikinetako baldintza kustikoei buruzko NBE-CA-81 Eraikuntzako Oinarrizko Araua onartzen duena; abuztuaren 12ko 2115/1982 Errege Dekretua, NBE-CA-82 araua onartzen duena (ikus 1982-09-03 eta 1982-10-07ko BOE); 1988ko irailaren 29ko Agindua, NBE-CA-82 arauaren eranskinetako zenbait alderdi argitu eta zuzentzen dituena; eta horiekin bat datozen gainerako arauak.

- Urriaren 4ko 1eko 21777/1996 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Oinarrizko Araua. Eraikinetako Suteen aurkako Babes Baldintzak, NBE-CPI-96 (96-10-29ko 261 zk. BOE).
 - Industria, Energia eta Meategin Administrazio Ataleko zuzendariak 1996ko apirilaren 15ean emandako EBAZPENA, gasolindegi, garaje eta ibilgailuen konponketarako tailerrei dagokienean MI-BT-027 jarraibide teknikoan 9. Atala interpretatzeko argibideak ematen dituena (96-7-31ko 146 zk. EHAA).
- 2.- Lokala hosgabetzea, ez daitezzen gainditu logela, sukalde eta egongeletan 40 dB(A) egunez eta 30 dB(A) gauez 60 segundu jarraiko soinu maila baliokidea (Leq.60-s) neurtuta, eta 45 dB(A) egunez eta 35 dB(A) gauez gehieneko soinu maila (Lmax) neurtuta, hori guztia udal arautegi espezifikoa egonez gero, haren kalterik gabe.
- 3.- Sarrera eta irteerako ateeak isilak izan behar dute.
- 4.- Makineriaren finkaketak dardararen kontrako elementuez egin behar dira, eraikinaren egiturara, gertuko lokal eta etxebizitzetara ez dadin dardarari helerazi.
- 5.- Kanpoko aireztapen iraunkorra auzokoei eragozpenik sortu gabe egingo da; airearen irteera etxeko edo inguruko lokaletako edozein baotik 3 metrora gutxienez jarri behar da, eta lokalaren kanporako gutxieneko aireztapen iraunkorra ibilgailuek har dezaketen azalera erabilgarriaren %2koa izango da, errodadurako pasiloak barne.

Aireztapen iraunkorreko irekiduratzat hartu ahal izango dira ateetan egindakoak baldin eta aireztapen horrek garajearen aireztapen orokorrerako aurreko paragrafoan aipaturiko azalera osoaren %75a gainditzen ez badu.

Garajearen aireztapeneko bi irekidura egongo dira fatxada ezberdinetan, ahal dela pareko fatxadetan jarriko dira lokalean haize mugimendua sortzeko.

Garajeko edozein puntutik, lerro zuzenean, gehienez ere 25 metro egongo dira aireztapeneko baoren batera, honen azalera 0,25 m²koa izango delarik gutxienez.

Aireztapeneko bao iraunkorrak bertikalean jarriko dira eta beti guztiek erabiltzeko diren lekuetan.

Itxitako garaje plaza bakoitzak bi irekidura iraunkor izango ditu atearen goi eta behealdean, sabai eta zorutik 30 cm. Baino tarte txikiagora. Ate bakoitzeko irekiduraren gutxieneko azalera erabilgarria 200 cm²koa izango da.

Garaje plazen arteko aireztapena bermatuko da garajeen artean aireztapeneko zuloak jarritz.

Aparkalekuen arteko aireztapena bermatzea gomendagarria da, beraien artean etengabeko aireztapen tarteak ezarriz.

Eskatzen den kanpoko aireztapen iraunkorra beteko ez balitz horren ordeztapen bortxatuko sistema jarri beharko litzateke gutxieneko osasungarritasun eta segurtasun baldintzak bermatzeko.

- 6.- Debekatuta dago mota guztietako erregaiak biltegitratzea, autoen depositoetakoak izan ezik.
- 7.- Oin bakoitzean koipe edo gasolinaz bustita egon daitezkeen trapuak gordetzeko ontziak jarri behar dira, sukotrako materialezkoak eta estalki abisagratua dutenak.
- 8.- Era berean, gasolina edo koipea ustekabeen erortzen denean xurgatuko duten produktuak (harea, etab.) ontzi irekietan eduki behar dira, 500 m²ko edo frakzioko, bana jarritz.

- 9.- Jardueraren eta etxebizitzaren artean dagoen atarte bereizleko ateeak automatikoki ixten direnak izango dira eta suaren kontrako 30 minutuko erresistentzia eduki behar dute (RF-30) bakoitzak, gutxienez.
- 10.- Aparkalekuan okupa daitekeen puntutik proposatutako irteeretara egon behar duen bidearen luzera 35 metro baino gutxiagoa izango da.
- 11.- Husteko bide gisa erabiliko diren eskilerak gutxienez metro bateko zabalera edukiko dute.
- 12.- Eskileren zabalera hainbesteko sakontasuna eduki behar dute gutxienez eskailburuek.
- 13.- Irteeratako ateeak kanpoaldera irekitzen direnak izan behar dute eta izukontrako palanka eduki.
- 14.- Jarri behar dira era berean: hauts lehorreko su itzalgailu eramangarria (1), 21A-113B eraginkortasunekoak, egin beharreko bidearen 15 metrora.
- 15.- Hustutzeko bide guztiek eta suteen kontrako gailu guztiek NBE-CPI-96 arauko 12. Artikuluan agindutakoaren arabera egon behar dute seinalizatuta.
- 16.- Garajeetan jarritako suteen aurkako babes neurriek Industria eta Energia Ministerioaren 1942/1993 Errege Dekretuak ezarritako mantenimendu programa beteko dute gutxienez.
- 17.- Denentzat den kanporako hustuketarako irteerak RF-30 itxiera automatikoko ate bat izango du.
- 18.- Larrialdiko luminarien arteko distantzia kokatuta daudeneko garaierak halako lau baino txikiagoa izan beharko du, azken distantzia hori 2 eta 2,5 metro bitartekoa izango delarik.

19.- Proiektuan adierazita dauden zehazpenak eta neurri zuzentzaileak nahitaez bete behar dira, goian aipatutako jarribideekin bat ez datozenean izan ezik.

A eta **B** garajeak banan-banan sailkatu dira eta bakoitzari dagokion neurri zuzentzaileak ezarri zaizkio, bi eraikinak erabat bereizita baitaude.

JOSE M^a ZINKUNEGI ORBEGOZO

Zula Baserriaren errtila eta fatxada berritzeko, Jose M^a Zinkunegi Orbegozo Jaunak aurkeztu duen baimena eskakizuna aztertu ondoren, Baimen hori ematea onartu dut, baldintzapen hauekin:

- Teila zeramika arabiarra edo antzekoa jarriko da.
- Estalkiaren egitura eraberritu edo fatxadaren baten aldaketari egin behar izango balitz, gai den teknikariak erredaktatutako eta dagokion Elkargoak ikusonetsitako proiektua aurkeztu behar da.
- Fatxada txuriz edo kolore argiz margotuko da.

12.- URJENTZIZKO GAIA

Alkateak, Kutxako Batzar Orokorreko Ordezkararen Izendapen berria egiteko deia, atzo iritsi zela esan du eta presa haundiko gaia denez eta hurrengo baterako uzterik ez dagoenez, bilkura honetan urjentziz tratatzea proposatu du.

Proposamena aho batez onartua izan da.

KUTXAKO BATZAR OROKORREKO ORDEZKARIAREN IZENDAPEN BERRIA

Lizartza, Lezo, Oiartzun, Zaldibia, Amezketan, Usurbil eta Anoetako Udaloek, herri txiki gisa sortu eta atera zitezkeen arazo eta proposamenak Kutxako Batzar Orokorrean eramateko, ordezkari izendatu genuen Jose Antonio Urkiola Cuni jauna, duela bi urte. Nahiz eta hasiera batetan eragozpenik jarri ez, Urkiola jaunren lana zenbait agintariri gehiegi ez zitzazion gustatu, eta bateraezintasun kasu bat atereaz kalean utzi zuten.

Hau guztia kontutan izanik, eta lanarekin ildo berdinarekin jarraitzeko ordezkaria izendatu beharrean aurkitu garenez, honako puntu hauek onartzeko eskatzen diogu Osoko Udal Batzarrari:

- 1.- Jose Antonio Urkiola Cuni jaunari, zazpi herri hauen izenean KUTXAKo Asanblada Orokorrean egin duen lanagatik eskerrak ematea.
- 2.- Herri txikien sentsibilitatea KUTXAKo Asanblada Orokorrean present egon dadin, JOSE MARI PEREZ BUSTERO jauna, NAN. 15.645.904 zenbakiduna, gure ordezkari berri gisa izendatzea.
- 3.- Erabaki honen berri, KUTXAKo Batzorde Eragileari ematea.

Kutxako Batzar Orokorreko Ordezkariaren Izendapen Berriaren proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamart'erdiak direnean.